

**24/2025 EBAZPENA, URTARRILAREN 8KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ BAIESTEN BAITA OSPITALEKO PROGRAMEN UNITATEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, VITORIA-GASTEIZKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO OSPITALEKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORETZAN.**

### **AURREKARIAK**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 1066/2024 Ebazpenaren bidez, argitaratu zen Ospitaleko Programen Unitateko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko lehiaketarako deialdia, Vitoria-Gasteizko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan. ekainaren 21eko EHAAn (121. zk.) eta uztailaren 3ko BOEn (160. zk.) argitaratu zen.

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2024ko uztailaren 24an amaitu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 1525/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua arabera (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

**EBAZTEN DUT:**



**Lehenengoa.**– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Ospitaleko Programen Unitatearen Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

**Bigarrena.**– Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

**Laugarrena.**– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a.



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

**I. ERANSKINA****OSPITALEKO PROGRAMEN UNITATEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA.**

Onartuen behin betiko zerrenda:

ADELINA PÉREZ ALONSO

Baztertuen behin betiko zerrenda:

EZ DAGO INOR.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a.

## II. ERANSKINA

### OSPITALEKO PROGRAMEN UNITATEKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA

#### BALORAZIO BATZORDEA

**Batzordeburua:**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariordea – Koldo Berganzo Corrales.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Kalitateko zuzendariordea – Francisco Serna Rodríguez.

**Lehenengo batzordekidea:**

Donostialdeko ESiko Arreta Integratuko zuzendaria – Eider Uzkudun Lizaur.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea – Jorge Romeo Ollora.

**Bigarren batzordekidea:**

Barrualde-Galdakao ESiko Arreta Integratuko zuzendaria – Miren Edurne Martínez Ayuso.

Ordezkoa: Arabako ESiko zuzendariorde medikoa – María Ángeles Calvo Gainzarain.

**Hirugarren batzordekidea:**

KSUko fakultatibo espezialista medikoa – Gemma Fernández Peñalba (IVAPen proposamena).

Ordezkoa: KSUko fakultatibo espezialista medikoa – Rafael Sánchez Bernal (IVAPen proposamena).

**Idazkaria:**

Zuzendaritza Nagusiko Hautaketa eta Horniketako zuzendariordea – Xabier Arauzo Uriarte.

Ordezkoa: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Hautaketako zerbitzuburua – Miriam Aparicio Sáez.